

## JANGELAKO BEGIRALEENTZAKO 2016-2017 FORMAZIO ESKAINTZA

Aurreko ikasturteetan bezala, BAIKARAK eskola jangeletan lanean ari diren langileentzako eta begiraleentzako formazio saioak eskainiko ditu; aurten ere, Gipuzkoako eskola publikoko ikastetxeetan.

Jakin badakigu jangeletan ari diren kideen artean askotarikoa dela formazio maila, eta, beti ere bateratasuna ez dagoenez, formazioa gaika antolatzea erabaki dugu, egoera eta errealitate bakoitzari egokitzeko asmoz.

Beraz, aurreko ikasturteetako proposamenari eutsiko diogu, eta ondoren azaltzen dugun eran osatuko dugu. Horrela, ikastetxe bakoitzak bere interes eta premien arabera moldatu ahal izango du formazioa.

### FORMAZIO MODULUAK:

**1. JANGELAREN HEZKUNTZA XEDEA:** Nortasunaren printzipioak. Orientazioa, hezkuntza integrala, hezkuntza proiektua eta koherentzia. Eskola jangelaren funtzioak eta xedeak.

**2. JANGELAN HEZTEA:** Baliabideak, helburuen plangintza, denbora librearen tratamendua. Familian bazkaltzea, eskolan bazkaltzea.

**3. ALDERDI PSIKOPEDAGOGIKOAK:** Jokabidearen egituraketa, ohituren definizioa, ohiturak nola finkatzen diren, gizarte ohiturak, komunikaziorako trebetasunak eta gizarte trebetasunak.

#### **4. ESKU-HARTZEA, BITARTEKOTZA ETA GATAZKAK KONPONTZEA:**

Garapen psikologiaren eta gizarte psikologiaren oinarriak. Garapen ebolutiboa eta gatazkak. Elkarreragina, jarrerak, egokitzapena eta integrazioa. Oldarkortasuna (nola sortzen den) eta jarrera oldarkorrek ezabatzea. Apatia. Aurkakotasuna. Heziketa behar bereziak...

**5. DENBORA LIBREA ETA JOLASA:** Jolaserako eta olgetarako planteamenduak. Talde jolasak. Jolaslekurako jolasak. Aisiako jardueren diseinua eta plangintza. Ipuinak.

**6. JANGELAKO BEGIRALEAK:** Jangelako hezitzaileak jangelako ordenari loturiko jarrerak eta ohiturak transmititzeko ardura du. Helburu errealistak finkatzea, jangelako garaian ikasleek izan beharreko jarrerari loturik.

**7. HAURREN PORTAERAREN INGURUKO GAIK (Izaera, arazoak eta gatazkak):** Haurren portaeran arazoak. Gatazken ebazpenerako trebetasunak. Gatazken ebazpena eta elkar bizitzeko arazoak. Gatazkaren aurrean esku-hartze ezberdinak.